Código Exp.: 2024CHOZ0033 **Asunto:** AMAIA ANTZOKIA ERABERRITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, ARRASATEKO "AMAIA ANTZOKIAREN ERABERRITZE INTEGRALERAKO EGIKARITZE PROIEKTUA" IDAZTEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUENA.	**PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS QUE REGIRÁN EN EL CONTRATO PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN DEL "PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REFORMA INTEGRAL DE AMAIA ANTZOKIA" DE ARRASATE.**
1. KONTRATUAREN XEDEA.-	***1. OBJETO DEL CONTRATO.-***
Kontratuaren xedea da Arrasateko AMAIA ANTZOKIAREN ERABERRITZE INTEGRALERAKO EGIKARITZE-PROIEKTUA idazteko zerbitzua ematea. Lortzen den azken proiektuak, integrala behar duen heinean, kalitate handiko eta arte eszeniko guztietarako prestazioak dituen antzokia lortzeko beharrezkoak diren proiektu partzial guztiak jasoko ditu bere baitan; batez ere baldintza akustikoei eta argiteria-teknikoari dagozkienak, ikus-entzutekoen proiekzioei zein zinematografikoei dagozkienak, erabilera publikoa izatearen ondorioz dagozkionak eta funtzionaltasun osoa bermatzeko beharrezkoak diren instalazio guztiei dagokienak (ezinbestean barne hartuko duelarik eszenarako makineria motorduna, eguneratua eta egokitua). Egikaritze-proiektuaren idazketa faseka egingo da, honako hauek barne: - 1. fasea: Aurreproiektua - 2. fasea: Oinarrizko Proiektua eta Jarduera Proiektua - 3. fasea: Egikaritze-proiektua eta Autobabes Planerako proposamena.	Es objeto del contrato la prestación del servicio para la redacción del PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REFORMA INTEGRAL DE AMAIA ANTZOKIA de Arrasate. El proyecto resultante, en cuanto que integral, incluirá todos los proyectos parciales necesarios para la obtención de un teatro con prestaciones de gran calidad y plenamente funcional para todo tipo de artes escénicas; especialmente en lo concerniente a las condiciones acústicas y luminotécnicas, de proyección cinematográfica y audiovisual, a las derivadas de su uso de pública concurrencia y a las de todas las instalaciones necesarias para garantizar dicha funcionalidad plena (que incluirá necesariamente una maquinaria escénica motorizada, actualizada y adaptada). La consecución de la redacción del Proyecto de Ejecución se desarrollará por fases, incluyendo las siguientes: - Fase 1: Anteproyecto - Fase 2: Proyecto Básico y de Actividad - Fase 3: Proyecto de Ejecución y propuesta de Plan de Autoprotección.

Código Exp.: 2024CHOZ0033 **Asunto:** AMAIA ANTZOKIA ERABERRITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

2. AURREKARIAK ETA HELBURUAK.-	***2. ANTECEDENTES Y OBJETIVOS.-***
Antzokiko sarrerako eskaileretan sabai aizunaren zati bat erori zela eta, udalak KREAN S.COOP. enpresari eskatu zion antzokian egin beharreko jarduketen memoria baloratu bat egitea, aldez aurretik ere hainbat arazo bazeuzkalako eraikinak, eta, horrela, horiek guztiak konpontzeko behar den inbertsioaren ahalik eta estimaziorik egokiena lortu ahal izateko.	A raíz del desplome de parte del falso techo sobre las escaleras del hall de entrada del teatro, el ayuntamiento encargó a KREAN S.COOP. la elaboración de una memoria valorada de las actuaciones necesarias a ejecutar en el teatro, ya que venía presentando diversas problemáticas previas, de forma que se pudiera obtener una estimación lo más fehaciente posible de la inversión requerida para la subsanación de todas ellas.
Baloratutako memoria horretan hainbat jarduera jasotzen ziren: sarrerako gunean (*hall*-ean), emakumezkoen komunetan, kamerinoetan, proiekzio-gelan, areto teknikoetan (klimatizagailuak, hedapen-sistemak eta galdarak), ur filtrazioak saihesteko itxituren gainekoak, argiztapenaren gainekoak, areto nagusiaren gainekoak, eszenatokiaren gainekoak eta suteen kasuan babes-baldintzak egokitzeari buruzkoak.	En dicha memoria valorada se recogían diversas actuaciones: actuaciones sobre el hall de entrada, en los aseos femeninos, en los camerinos, en la sala de proyección, en las salas técnicas (climatizadoras, sistemas de difusión y calderas), sobre cerramientos para evitar filtraciones de agua, sobre la iluminación, sobre la sala principal, sobre el escenario y sobre la adecuación de las condiciones de protección en caso de incendio.
Txostenean jasotako bi konponketa-aukeretan, aurreikuspen ekonomikoa 2,5 milioi eurotik gorakoa zen.	En las dos opciones barajadas en el informe, la estimación económica superaba los 2,5 millones de euros.
Egin beharreko inbertsioaren garrantzia ikusita, udalak antzokia guztiz eraberritzeko proiektu bat egitea erabaki du, aipatutako memoria baloratuan jasotako jarduketak barne hartuko dituena, baina, gainera, antzokiko espazioen kontzeptu bateratu baten oinarrian, osotasun kongruente gisa funtziona dezan garatuko dena; eta ez beharrezkoak diren jarduketa partzialen batura soil gisa.	Vista la enorme trascendencia de la inversión a acometer, el ayuntamiento ha decidido proceder con un proyecto para la reforma completa del teatro, que incluya las actuaciones necesarias relacionadas en la mencionada memoria valorada, pero que lo haga, además, dentro de una concepción unitaria de los espacios del teatro, de forma que funcione como un todo congruente y no como suma de actuaciones parciales necesarias.
Beraz, proiektu arkitektoniko bat lortu nahi da, ahalik eta kalitate handienekoa, antzokiaren	Se trata, por tanto, de obtener un proyecto arquitectónico que aúne, con la mayor calidad

erresistentzia, funtzionaltasun osoa eta edertasuna batuko dituena; herritarrentzat topagune izango dena eta kulturaz eta arte eszenikoez gozatzeko balioko duena, Arrasate bezalako udalerri batek merezi duen heinean.	posible, la resistencia, la plena funcionalidad y la belleza del teatro como lugar de encuentro para la ciudadanía y de disfrute de la cultura y de las artes escénicas que un municipio como Arrasate se merece.
Hala, proiektuak bereziki zaindu beharko du gizarte-alderdia. Kulturak herria eraikitzen duenez, edozein herritarren beharretara erabat egokitutako espazioa izan beharko da, berdintasuna ere erabat bermatuz.	En este sentido, el proyecto deberá cuidar de manera minuciosa la vertiente social, en tanto que la cultura construye ciudadanía, siendo un espacio plenamente adaptado a las necesidades de cualquier persona y en condiciones de plena igualdad.
Proiektuak, hura egiteko faseetan adierazi den bezala, jarduera-proiektua ere jaso behar du. Ezinbestean 300 pertsonatik gorako edukiera izango duen erabilera publikoko aretoa izango denez, dagokion jarduera sailkatuko lizentziaren ondoriozko eskakizunak justifikatu beharko ditu.	El proyecto, tal y como se ha indicado en las fases de elaboración del mismo, debe incluir el pertinente proyecto de actividad de forma que se justifique, debido a su uso de pública concurrencia cuyo aforo será superior a las 300 personas, las exigencias derivadas de la obligada licencia de actividad clasificada.
Era berean, eta antzokiaren azken aforoa arkitektura-proiektuak antzokiak dituen eskakizun guztien konponketentzat egingo dituen proposamenen ondorio izango den arren (ez da, beraz, proiektuaren hasierako helburu bat izango), egikaritze-proiektua idazteko fasean, antzokiaren Autobabes Planerako proposamen bat ere idatziko da. Hala, proiektuan txertatuko da, baita ere, jokoen eta ikuskizunen arauditik eratorritako beharrizan guztien gauzatzea.	Así mismo, y aunque el aforo final del teatro vendrá definido por la idoneidad del proyecto arquitectónico a la resolución de las necesidades descritas (no será, por tanto, un objetivo inicial del proyecto), en fase de elaboración del proyecto de ejecución, se redactará una propuesta de Plan de Autoprotección de la instalación, con la inclusión en el proyecto de ejecución de las necesidades derivadas de la normativa de juegos y espectáculos.
Lortzen den proiektuak zehaztu beharko ditu proposatzen diren esku-hartze eta jarduketa guztiak. Hala, udalak, lan osagarririk behar izan gabe, proiektuan deskribatutako obren lizitazioa egin ahal izango du zuzenean. Obra horien emaitza antzerkiaren antolamendu erabat operatiboa izango da, eta, beraz, horiek lortzeko eska daitezkeen dokumentu guztiak jaso beharko ditu proiektuak (instalazio guztien proiektu partzialak barne, akustika-proiektua, altzarien	El proyecto resultante debe definir concretamente todas las intervenciones que proponga, de tal forma que el ayuntamiento pueda acometer, sin necesidad de trabajos complementarios, la licitación de las obras descritas en el proyecto. Resultado de esas obras será la disposición plenamente operativa del teatro, con lo que el proyecto deberá recoger cuantos documentos sean exigibles para su consecución (incluyendo proyectos parciales de

beharrak, makineria espezifikoa, etab.).	todas las instalaciones, proyecto acústico, necesidades de mobiliario, maquinaria específica, etc.).
3. *PROIEKTUAREN EREMUAREN DESKRIBAPENA.-*	***3. DESCRIPCIÓN DEL ÁMBITO DEL PROYECTO.-***
Lizitazio honetan jasotako dokumentazioaren artean, KREAN S.COOP. enpresak idatzitako Memoria Baloratua erantsi da, aurreko puntuan aipatzen zen berbera. Memoria horrek hasierako atal bat jasotzen du, non antzokiaren esparruaren deskribapena egiten den modu egokian. Beraz, horren irakurketara bideratzen da atal honetan.	Entre la documentación incluida en la presente licitación se adjunta la Memoria Valorada elaborada por KREAN S.COOP. que se mencionaba en el punto anterior. Dicha memoria incluye un apartado inicial en el que se describe correctamente el ámbito en el que se encuentra el teatro por lo que desde aquí se deriva a su lectura.
Ohartu, soilik, antzokiaren kokapena konplexua dela, Otalora kaleko 2-4-6 atarietako etxebizitza-blokearen atzealdean eta ondoko mendiaren ezpondaren kontra garatzen baita.	Comentar, simplemente, que la ubicación del teatro es ciertamente compleja, ya que se desarrolla en la parte posterior del bloque residencial de la calle Otalora Lizentziaduna Nº2-4-6, y contra el talud del monte adyacente.
Proiektuak oso kontuan hartu beharko du konplexutasun hori proposatzen dituen esku-hartzeei heltzeko orduan; batez ere mendi-hegaletik lan egiteko zailtasuna dela-eta. Bestalde, antzokiaren barruko erabileretako batzuk, sekzioan, bizitegi-eraikinarekin maklatuta daudela ere kontuan izan beharko da.	El proyecto deberá tener muy en cuenta dicha complejidad a la hora de abordar las intervenciones que se propongan, en especial debido a la dificultad de abordar trabajos desde la ladera del monte, y a la existencia de usos dentro del teatro que se maclan, en sección, con el edificio residencial.
Halaber, proiektuak jasoko dituen esku-hartzeak izan beharko dira antzokiaren epe luzerako erabilera-baldintzak kontutan hartuta. Bereziki sarbideei eta ebakuazio-bideei dagokienean (bai publikoarenak, baita material eszeniko guztienak ere), bizitegi-eraikinarekin maklatutako espazioetan barrena garatzen baitira.	Así mismo, el proyecto deberá contemplar las intervenciones de forma que se tengan en cuenta los condicionantes de uso durante la vida útil del teatro, en especial en lo referente a los accesos y las vías de evacuación, tanto de público como de todo el material escénico, ya que se desarrollan a través de espacios también maclados con el edificio residencial.
4. *PROIEKTUAK ASETU BEHARREKOAK.-*	***4. NECESIDADES A SATISFACER POR EL PROYECTO.-***
4.1.- KREAN S.COOP. enpresaren Memoria	**4.1.- Resolución de las necesidades recogidas en la Memoria Valorada de KREAN**

Código Exp.: 2024CHOZ0033 **Asunto:** AMAIA ANTZOKIA ERABERRITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

Baloratuan jasotako beharrizanei erantzutea.	**S.COOP.**
Baloratutako memoriak antzokiko hainbat espaziotan antzemandako arazoak konpontzeko jarduketa espezifikoak biltzen ditu. Aipatu denez, udala proiektu hau idaztera eraman duena zera da: arazo horiei guztiei konponbide bat emateko borondatea; baina horiei ikuspegi formal eta funtzional bateratu bakar baten bidez erantzutea, ikuspegi integralarekin. Beraz, dokumentuak jasotako arazo eta gabezia guztiak ase beharko dira proiektuan, baina konponbide zehatzen batura gisa beharrean, ikuspegi bateratu eta integral horretatik, beti.	La memoria valorada recoge actuaciones específicas para la resolución de una diversidad de problemas detectados en varios de los espacios del teatro. Tal y como se ha mencionado, la decisión municipal de elaborar el presente proyecto responde a la voluntad de proporcionar una solución a todos esos problemas bajo un documento proyectual único que, más allá de intervenciones resolutivas concretas, proporcione soluciones, de forma integral, a todos los problemas detectados desde una perspectiva formal y funcional unificada.
Nolanahi ere, proiektuak aipatutako memorian jasotako eskakizunei erantzun beharko die:	En todo caso, el proyecto debe responder a las exigencias recogidas en la mencionada memoria:
Sarreran: sektorizazioa, intsonorizazioa, klimatizazioa (leihatilaren eremua barne), argiztapena.	En el hall de entrada: sectorización, insonorización, climatización (incluyendo taquilla), iluminación.
Lehen solairuko emakumezko komunetan: komun berri bat sartzea (proiektuak, halaber, genero-markarik gabeko komunak jaso beharko ditu, eta eskatu beharreko unitate erreserbatuen irisgarritasun osoa bermatu beharko du).	En los aseos femeninos de la primera planta: incorporación de un nuevo inodoro (aunque el proyecto deberá recoger, también, aseos sin marca de género y garantizar la plena accesibilidad de las unidades reservadas exigibles).
Kamerinoetan: irisgarritasuna bermatzea, klimatizazioa hobetzea, dutxak egokitzea, kamerino indibidualak edo intimoak sortzea komunitarioez gain, horiek ere dutxadunak, horien guztien egokitzapen akustikoa eta kutxa eszenikoarekiko harremanarena.	En los camerinos: garantizar su accesibilidad, mejora de climatización, adaptación de duchas, creación de camerinos individuales o íntimos además de comunitarios, que cuenten también con ducha, adecuación de su acústica y de su relación con la caja escénica.
Proiekzio-aretoan: klimatizazio egokia.	En la sala de proyección: climatización adecuada.
Klimatizazio-gelan, galdaretan eta banaketa-sisteman: egungo sistema ordezkatzea (memoriaren 2. aukera).	En sala de climatización, calderas y sistema de difusión: Sustitución del sistema actual (opción 2 de la memoria).
Eraikinaren estankotasuna: estalkiaren eraberritzea, mendiaren ezpondarekiko	Estanqueidad del edificio: reforma de la cubierta,

jarduketak, fatxadak, etab.	actuaciones contra la ladera, fachadas, etc.
Areto nagusian: hormen estradosatuak (hezetasunak), atzeko harmailetako mailak bateratzea, moketa ordezkatzea, argiteria, kableak ezkutatzea, etab.	En la sala principal: trasdosado de muros (humedades), unificación de peldaños de acceso grada trasera, sustitución moqueta, alumbrado, esconder cableado, etc.
Eszenatokian/kaxa eszenikoan: zoruaren berrikuspena (maldak), makinaria eszenikoaren zein bestelako mekanismoen motorizazioa, etab.	En el escenario/caja escénica: revisión del suelo (pendientes), motorización de la maquinaria escénica y de otros mecanismos, etc.
Biltegietan: sarrerako atea zabaltzea, bertako langileentzat aldagelak, komunak eta dutxak sortzea, mantentze-lanak, sektorekatzea, etab.	Almacenes: ampliación puerta acceso, incorporación de vestuarios, aseos y duchas para personal, mantenimiento, sectorización, etc.
Suteen aurkako babes-jarduketak: su-itzalgailuak eta BIEak araudira egokitzea.	Actuaciones de protección contra incendios: adecuación extintores y BIEs a la normativa.
4.2.- Proiektuan jaso beharreko premia gehigarriak.	**4.2.- Necesidades adicionales a satisfacer en el proyecto.**
Baloratutako memorian jasotako beharrizanez gain, proiektuak honako gai hauei ere irtenbideak eman beharko dizkie:	Además de a las necesidades recogidas en la memoria valorada, el proyecto deberá proporcionar soluciones a los siguientes aspectos:
- Eraikinaren estalkien arazoa konpontzea. Estalkia birmoldatzea planteatu beharko da, ur filtrazioen arazoak, erretenen eta zorrotenen eskasia, mendiaren ezpondan ur-pilaketak eta abar konpontzeko.	- Solucionar el problema de las cubiertas del edificio. Se deberá plantear la reconformación de las mismas para solucionar problemas de filtraciones de agua, insuficiencia de canalones y bajantes, acumulación en ladera, etc.
- Gehienbat areto nagusian gertatzen diren hezetasunak behin betiko konpontzeko neurriak.	- Medidas para solucionar definitivamente las humedades que se producen, sobre todo, en la sala principal.
- Galdara ordeztea. Egungoa katalogoz kanpo geratu da eta horrek arazoak dakartza mantenurako.	- Sustitución de caldera. La actual se encuentra descatalogada y presenta problemas de mantenimiento.
- Etxebizitzei zerbitzua ematen dien galdara, gela komunean dagoena, beste lekuren batetara birkokatu edo hori independizatzea.	- Plantear una solución para trasladar o independizar la caldera existente en la sala de calderas que da servicio al edificio residencial.

- Berokuntza/klimatizazio sistema bat planteatzea, sistemaren mantenurako sarbide egokiak izango dituena (estalkian, oholtzapean, e.a.).	- Plantear un sistema de calefacción/climatización con accesos adecuados para su correcto mantenimiento (sea en cubierta como bajo escenario).
- Espazio guztien klimatizazio egokia zaintzea, antzokiaren bolumen handia kontuan hartuta, konfort termikoa edozein eserlekutan eduki ahal izateko. Era berean, antzokiaren erabileren eta espazioen arabera independizatu ahal izateko moduko sistemak diseinatuko dira.	- Cuidar de la adecuada climatización de todos los espacios, teniendo en cuenta el gran volumen del teatro, de forma que permita el confort térmico en cualquier asiento del mismo. De igual forma, deberán poder independizarse los sistemas según usos y espacios del teatro.
- Kea detektatzeko sistema, antzerkiaren ohiko lanekin talkarik sortzen ez duena (argiztapen-balkoiaren erabilera, etab.).	- Sistema de detección de humos que no interfiera con las labores habituales del teatro (uso del balcón de iluminación etc.).
- Eraikinaren sarrera (*hall*-a) formatu txikiko erabilera kulturaletarako gaitzea, horretarako erosotasun-, funtzional- eta estetika-beharrei egokiro erantzunez. Horretarako, espazioa maximizatzeko aukera aztertu beharko da.	- Habilitar el hall para usos culturales de pequeño formato, respondiendo de forma adecuada a las necesidades de confort, funcionales y estéticas para ese fin. Para ello, se deberá estudiar la posibilidad de maximizar su espacio.
- Kamerinoak berritzea, bai irisgarritasunaren, bai erosotasunaren eta baita alderdi estetikoaren ikuspegitik ere. Bakarkako kamerinoak (edo intimoak) sortzeko aukera aztertzea.	- Reformar los camerinos, tanto desde el punto de vista de la accesibilidad como del confort y del aspecto estético. Estudiar creación de camerinos individuales o íntimos.
- Antzokiko argiztapen-sistema eraberritzea, bai antzokiarena bera (zerbitzu-eremuak barne) eta baita argiztapen eszenikorako azpiegiturena ere. Sistemak energia-eraginkortasuna eta ingurumen-iraunkortasuna zaindu beharko ditu. Halaber, kontuan izan beharko dira sistemaren mantenu-lanetarako erraztasuna eta segurtasuna.	- Reformar el sistema de iluminación del teatro, tanto el propio (incluidas las áreas de servicio) como las infraestructuras para la iluminación escénica. El sistema deberá cuidar la eficiencia energética y la sostenibilidad ambiental. Así mismo, deberá considerarse la facilidad y seguridad de las labores de mantenimiento del sistema.
- Makinaria eszeniko motorduna izateko sistema bat planteatu beharko da. Sistema horrek ahalbidetu beharko du bertatik honako elementuak zintzilikatu eta manipulatu ahal izatea: hagak (elektrifikatuak edo gabeak), elementuak (maskor askustikoaren sabaia,	- Plantear un equipamiento de maquinaria escénica motorizada que permita el colgado y manipulación de varas (electrificadas o no), elementos (techo de concha acústica, etc.) y cargas (*truss*, elementos escenográficos, etc.) en la misma, y su realización en condiciones óptimas

adibidez) edo kargak (*truss*-a, eszenografiako elementuak, e.a.). Gainera, zintzilikatze- eta manipulatze-lan horiek erosotasunez eta segurtasunez egin ahal izatea bermatu beharko du, bai eszenan dauden pertsonentzat, baita antzokiko langileentzat ere. Halaber, antzokiaren orrazia prestatu eta egokituta geratu beharko da makinaria motordunera egokitu ezin daitezkeen *rigging* elementuak instalatu ahal izateko.	de comodidad y seguridad, tanto para las personas participantes en escena como para las personas trabajadoras del teatro. Así mismo, el peine del teatro quedará acondicionado y adaptado para la instalación de elementos en *rigging* que no puedan ser adaptados a la maquinaria motorizada.
- Maskor akustikoaren sistema eraberritzea.	- Reforma del sistema para la concha acústica.
- Kalitate akustikoa ematea, gutxienez, gaur egun dagoenaren berdina izanik. Hori bermatzeko, behar beste azterketa akustiko egingo dira eta amaieran lortzen den proiektuak berariazko atal batetan jaso beharko du antzoki berriaren proiektu akustikoa. Eraikinaren gainerako erabilerekiko isolamendu akustikoa ere bermatuta geratu beharko da.	- Proporcionar una calidad acústica, al menos, igual a al existente a día de hoy. Para ello, se deberán elaborar tantos estudios acústicos como sean necesarios y el proyecto final deberá recoger un apartado específico con el proyecto acústico del nuevo teatro. Se deberá garantizar, también, el correcto aislamiento acústico respecto del resto de usos existentes en el edificio.
- Akaberak zaintzea, bai gune nagusietakoak, bai zerbitzukoak, funtzionalak izan daitezen eta, aldi berean, antzoki osoari nortasun estetiko bateratua eman diezaioten.	- Cuidar los acabados, tanto de las zonas principales como las de servicio, de forma que sean funcionales y a la vez otorguen una identidad estética unificada a todo el teatro.
- Antzokiko zoruak berritzea planteatzea, haien azpian kableak jartzeko aukera izan dezaten.	- Plantear la reforma de los suelos del teatro, de forma que permitan el tendido de cableado bajo los mismos.
- Goiko aldeko harmailak murriztea eta/edo erregularizatzea, araudira egokitzeko. Harmailen banaketa berri bat ere planteatu daiteke, proiektuaren hoberako bada.	- Reducción/regularización de graderío superior para su adecuación normativa. Cabe plantear una nueva distribución de graderíos, caso de que sea para beneficio del proyecto.
- Komunak eraberritu eta emakumeen komunak egokitzea, komun horiek birdimentsionatuz, arauetara egokitzeko. Genero-markarik gabeko komunak ere aurreikusiko dira.	- Reforma de los aseos y adecuación de los aseos de mujeres mediante redimensionamiento de los mismos para su adaptación normativa. Se tendrán que prever aseos sin marca de género.
- Planteatu beharko da sistema berri bat, funtzionala eta mantentze-lan errazekoa, orkestrarako fosoa behar den kasuetarako, lehen	- Planteamiento de una reforma para un sistema funcional, y de mantenimiento asumible, para la remoción de las primeras filas de butacas para

lerroetako besaulkiak kentzeko eta jartzeko.	eventos que necesiten contar con foso para orquesta.
- Antzokiko besaulki guztiak ordeztea.	- Sustitución de todas las butacas del teatro.
- Antzokiko langileentzako aldagelen arazoarentzat konponbidea planteatzea behe solairuan (biltegiaren ondoan, ahal dela).	- Planteamiento de una solución en planta baja (preferentemente junto al almacén) de vestuarios para las personas trabajadoras del teatro.
- Biltegira sartzeko ateak berritzea, tamaina handiko materialak errazago sartzeko aukera izan dezaten.	- Reforma de las puertas de acceso al almacén, de forma que permitan un acceso más sencillo de materiales de envergadura.
- Oholtzarako zoru berri bat proposatzea, lehendik dagoenaren azterketak edo proiektuaren kontzeptuarekin bateraezintasunak haren ordeztea gomendatzen badu.	- Planteamiento de un nuevo suelo para el escenario, caso de que el análisis del existente, o su incompatibilidad con la concepción del proyecto, recomiende su sustitución.
- Karga-igogailua birkokatzea, eraikinaren kanpoaldetik eszenatokiraino arazo gehigarririk gabeko sarbidea eskaini dezan.	- Reubicación del montacargas de forma que su acceso desde el exterior del edificio y hasta el escenario se realice sin complicaciones añadidas.
- Espazio eszenikorako planteamendu funtzionala eta kongruentea egitea. Espazio eszeniko osoa erabiltzea eskatzen duten ekitaldietan, espazio osagarriak oso txiki geratzen dira, eta horien erabiltzea zailtzen dute. Proiektuak planteamendu bat egin beharko du espazio horiek egokitzeko (baita beste espazio batzuk birformulatu behar badira ere) eta, espazio eszenikoaren erabilera maximizatua duten ekitaldi horietan ere, funtzionaltasuna bermatzeko.	- Planteamiento funcional y congruente del espacio escénico. En eventos que exigen el uso completo del espacio escénico, los espacios auxiliares quedan reducidos a la mínima expresión, dificultando su uso. El proyecto deberá realizar un planteamiento para la adecuación de dichos espacios (incluso reformulando otros espacios) y su funcionalidad en eventos con uso maximizado del espacio escénico.
- Kutxa eszeniko unibertsala mantentzea, 12x10 metroko azalera eta 12 (gutxienez) edo 15 (idealki) metrorainoko altuera libreduna.	- Mantener una caja escénica universal, de dimensiones 12x10 metros y altura libre de 12 (mínimo) a 15 (ideal) metros.
- Kontrol-eremu bat (soinua, argiztapena, etab.) kokatzeko planteamendua egitea, antzokiaren beraren banaketan guztiz integratuta geratu dadin eta baldintza funtzionalak izan ditzan, eszena ikusi eta entzuteko baldintza egokiak dituen kokapenean kokatuta, ikusleekin interferitu gabe	- Planteamiento para la ubicación de una zona de control (sonido, iluminación, etc.) en condiciones de funcionalidad plena e integrada en la distribución del propio teatro, y ubicada en un lugar de escucha y visión adecuadas de la escena, sin interferir con la audiencia, y dotada de todas

eta beharrezko instalazio guztiekin hornituta.	las instalaciones necesarias.
- Agertokira sartu ahal izateko sistema irisgarri bat planteatzea.	- Planteamiento de un sistema accesible para poder acceder al escenario.
- Sarrerako *hall*-aren eta eszenatokiaren artean sarbide zuzena sortzeko aukera aztertzea.	- Analizar la posibilidad de generar un acceso directo entre el hall de entrada y el escenario.
- Antzokiarentzat erreferentziazko fatxada bat proposatzea, nahiz eta etxebizitza eraikinaren behe-solairura mugatuta egon, programazioa modu duinean aurkeztu ahal izatea ere ahalbidetuko duena (horren aurkezpen digitala barne).	- Proponer una fachada referencial al teatro, aunque sea limitada a la planta del edificio residencial, y que permita presentar la programación de forma digna, incluida la presentación digital de la misma.
- Leihatila digital bat instalatzeko konponbide bat ematea.	- Proporcionar una solución de instalación de una taquilla digital.
- Proiektuan jasotzea beharrezko ekipamendu berri guztiak, hala nola: zinema-proiekzio digitaleko makina, argi- eta soinu-mahaiak, argiztapen-ekipoak, eszenikoak, etab.	- Recoger en el proyecto la implantación de nuevos equipamientos tales como: máquina de proyección cinematográfica digital, mesas de luz y sonido, equipos de iluminación, escénicos, etc.
- Eraikinean sare informatiko oso bat sortzea, erabilera posible guztiei erantzungo diena, eta Udalaren sarerako egungo lotura barne hartuko duena, zuntz-optiko bidez.	- Incorporar una red informática completa en el edificio, que responda a todos sus posibles usos, que incluya el conexionado existente con la red del Ayuntamiento mediante fibra óptica.
4.3.- Beste diseinu-irizpide batzuk.	**4.3.- Otros criterios de diseño.**
Antzokiaren erabilera balioanitzerako izaerari eustea ezinbestekotzat jotzen da. Proiektua balioaniztasun horri egokitu beharko zaio, eta era guztietako arte eszenikoak programatzeko irtenbide egokiak eskaini beharko ditu (baita orkestrak eskatzen dituenak ere, hala nola zarzuelak edo operak), musika kontzertuak, formatu handiko bilerak, kongresuak, aurkezpenak, etab.	Se considera primordial mantener el carácter polivalente del teatro. El proyecto debe adaptarse a dicha polivalencia y proporcionar soluciones adecuadas para poder programar artes escénicas de todo tipo (incluso las que exijan orquesta en foso como zarzuelas u óperas), conciertos de música, reuniones de gran formato, congresos, presentaciones, etc.
Proiektuan jasotzen diren instalazio guztiak eraikinaren bizitzan zehar erabiltzeko eta mantentzeko duten erraztasuna kontuan hartuta	Todas las instalaciones que incorpore el proyecto deben incluirse atendiendo a su facilidad de uso y mantenimiento durante la vida útil del edificio.

jaso beharko dira. Era berean, diseinuan kontuan hartu beharko dira aretoaren garbiketa errazteko egon daitezkeen beharrak (zikinkeria erraz garbi daitezkeen lurzoruak, esparru osoan garbiketa-makineriarako entxufeak hornitzea, garbiketa-tresnak gordetzeko biltegi bat sortzea, etab.).	Así mismo, se deberá tener en cuenta las necesidades para la limpieza del recinto a la hora del diseño (suelos resistentes a suciedad y fácilmente limpiables, dotación de enchufes para maquinaria de limpieza en todo el recinto, generación de un almacén para los utensilios de limpieza, etc.)
- Energia-irizpideak:	- Criterios energéticos:
Eraikin bat eraberritzeko proiektua bada ere, NZEB (Kontsumo Ia Nuluko Eraikinak) irizpideak betetzen saiatu beharko da. Hau da, energia-errendimendu oso altua bermatuko duen eraikina izan beharko da. Era berean, eskatutako energia hori modu nabarmenean estali beharko da iturri berriztagarriek sortutakotik. Beraz, proiektuak aztertu eta definitu beharko ditu ditu antzokiak zein aukera dituen energia berriztagarrizko sorgailuak jartzeko.	Aunque se trate de un proyecto para la reforma de un edificio existente, deberá procurarse cumplir con los criterios NZEB (Edificios de Consumo Casi Nulo). Es decir, se tratará de un complejo edificatorio que garantice un rendimiento energético muy alto. Así mismo, la casi nula energía requerida debe ser cubierta significativamente a través de energías generadas por fuentes renovables. Por tanto, el proyecto estudiará y definirá las potencialidades del teatro para la generación de energías renovables.
Antzokiaren birgaitzea, beraz, energia-kontsumoaren beharrak minimizatzeko irtenbideak proposatuz diseinatuko da, eta energia berriztagarri bidez sortzeko sistemak jaso beharko ditu. Horretarako, teknikoki posible diren aukera onenak aztertu beharko dira.	La reforma del teatro se diseñará, por tanto, incorporando soluciones que permitan minimizar las necesidades de consumo energético y deberá disponer de sistemas de generación de energía renovable, para lo cual se estudiarán las mejores alternativas técnicamente posibles.
- Instalazioak:	- Instalaciones:
Eraikinari ematen zaizkion instalazioek indarrean dauden arau-eskakizun guztiak bete beharko dituzte, baita aurreko puntuan ezarritako irizpide energetikoak ere.	Las instalaciones con las que se dote al edificio deberán cumplir con todas las exigencias normativas en vigor, además de con los criterios energéticos establecidos en el punto anterior.
Klimatizazio- eta argiztapen-instalazioek aukera eman beharko dute gela bakoitzean eskatzen den erosotasunera iristeko, sistema egokien bidez. Sistema horiei esker, instalazioek eskainitako prestazioak antzokiaren eskaera aldakorretara	Las instalaciones de climatización e iluminación deberán permitir que se alcance el confort requerido en cada una de las estancias mediante sistemas adecuados. Dichos sistemas deberán permitir la adecuación de las prestaciones

egokitu ahal izango dira (erabilera-intentsitateen, urteko sasoien, ordutegien eta abarren arabera). Azken helburua eskaririk txikiena eta eraginkortasun handiena izango da beti.	ofrecidas por las instalaciones a las demandas variables del teatro (según intensidades de uso, épocas del año, horarios, etc.). El objetivo último siempre será el de la mínima demanda y mayor eficiencia.
Bai argiztapen-instalazioak, bai ezartzen diren era guztietako makineriak eraginkortasun energetikoaren irizpiderik altuenetan oinarritu beharko dira.	Tanto las instalaciones de iluminación como las maquinarias de todo tipo que se implanten deben basarse en los más altos criterios de eficiencia energética.
Sortze-sistemak ahalik eta eraginkorrenak izango dira, energia berriztagarrien edo eraginkortasun handiko ekipoen eskarian oinarrituta. Eraikinaren eskaera aldakorrarekin egokitu ahal izango dira, eta nahikoak izan beharko dute sistemak edozein erabilera-egoeratan errendimendu altuekin lan egin dezan.	Los sistemas de generación serán lo más eficientes posibles y basados en demanda de energías renovables o equipos de alta eficiencia. Deberán poder adaptarse a la demanda variable del edificio y ser suficientes para permitir que el sistema trabaje con altos rendimientos en cualquier situación de uso.
Banaketa-sistemak espazioka zonifikatuko dira, eta bakoitzean kontsignak izango dituzte, ordutegi eta eragiketa-modu desberdinen arabera, espazio bakoitzaren erabilera-betekizunen arabera. Espazioak elkartuz gero, antzeko premiak dituztelako izango da, eta proiektuan behar bezala justifikatu beharko da.	Los sistemas de distribución se zonificarán por espacios y permitirán tener diferentes consignas en cada uno, en función de distintos horarios y modos de operación, según los requisitos de uso de cada espacio. De agruparse espacios, será porque tengan necesidades similares y se justificará adecuadamente en el proyecto.
Proiektuak energia berriztagarrien sorgailuen instalazio posible guztiak aztertu behar ditu. Esplorazio hori behar bezala justifikatuko da proiektuan bertan. Azken helburua eraikinaren autosufizientzia energetikoaren ahalik eta proportziorik handiena lortzea da.	El proyecto debe explorar toda posible instalación de generadores de energías renovables. Esta exploración se justificará debidamente en el propio proyecto. El objetivo final es el de perseguir la mayor proporción posible de autosuficiencia energética del edificio.
Antzokiaren instalazio elektrikoak araudian jasotako hornidura osagarriak izango ditu.	La instalación eléctrica del complejo se dotará de los pertinentes suministros complementarios recogidos en la normativa.
Proiektuak gainera, honakoak bermatu beharko ditu: EKTaren betetze osoa, eraikinaren instalazioak zerbitzu-azpiegituren sareetara lotzea eta proiektuak hiri-bilbe finkatuaren barruan	El proyecto deberá garantizar, además del cumplimiento escrupuloso del CTE, conexión de las instalaciones del edificio a las redes de infraestructuras de servicios, debiendo el

horretarako beharrezkoak diren obrak eta birposizioak zehaztea.	proyecto definir las obras y reposiciones necesarias para ello dentro de la trama urbana consolidada.
- Karbono-aztarna minimizatzea:	- Minimización de la huella de carbono:
Idazten den proiektuak karbono-aztarna minimizatzeko neurriak jaso beharko ditu, bai eraikuntza-prozesuetarako, bai antzokiaren erabilera eta mantentze-lanetarako. Zentzu horretan:	El proyecto que se redacte deberá contemplar medidas, tanto para los procesos de construcción como para los del posterior uso y mantenimiento del teatro, que minimicen su huella de carbono. En ese sentido:
- Ahal den neurrian, tokiko edo hurbileko materialak erabiltzea hobetsiko da.	- Se favorecerá el uso de materiales locales o cercanos en la medida de lo posible.
- Fabrikazioan CO2 isurpen baxuak dituzten materialei, lehengai berriztagarriekin egindakoei eta birziklatutakoei lehentasuna emango zaie.	- Se dará preferencia a materiales con bajas emisiones de CO2 en su fabricación, a los elaborados con materias primas renovables y a los reciclados.
- Emisio txikiko eraikuntza-prozesuak lehenetsiko dira, obran bertan sortutako materialak berriro aprobetxatzea, erregai fosilen mende ez dauden elementu osagarriak erabiltzea, etab.	- Se primarán procesos constructivos de bajas emisiones, con reaprovechamiento de materiales generados en la propia obra, uso de elementos auxiliares no dependientes de combustibles fósiles, etc.
- Proiektuak karbono-aztarna minimizatzeko ekonomikoki onargarriak diren proposamen guztiak egingo ditu, bai obrak egiteko garairako, baita antzokiaren bizitza erabilgarri osorako ere.	- El proyecto realizará todas las propuestas que sean económicamente asumibles para la minimización de la huella de carbono, tanto de las obras para su ejecución, como para la vida útil del teatro.
- Azken proiektuak memoria espezifiko bat jasoko du, alderdi horiek guztiak jasoko dituena eta karbono-aztarna minimizatzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko egindako ekarpenak baloratzen dituena.	- El proyecto final contendrá una memoria específica que recoja estos extremos y que valore las aportaciones realizadas en el mismo cara a la minimización de la huella de carbono y al fomento de la economía circular.
- Genero berdintasuna:	- Igualdad de género:
Idazten den egikaritze-proiektuak bere buruaren genero-inpaktuaren ebaluazioa egingo du. Azterketa hori proiektuari erantsitako memoria	El proyecto de ejecución que se redacte realizará una evaluación del impacto de género de sí mismo. Dicho análisis se realizará en una

espezifiko baten bidez egingo da, eta gaian eskumena duen pertsona batek idatzita eta sinatuta egon beharko du (erreferentzia gisa, berdintasunaren arloan unibertsitate-ikasketa espezifikoak dauzkan norbait, gutxienez 150 eskola-ordukoa).	memoria específica aneja al proyecto, y deberá estar elaborada y suscrita por una persona con competencia en la materia (como referencia, que haya cursado estudios universitarios específicos en materia de igualdad, por un mínimo de 150 horas lectivas).
Ebaluazio horrek proiektuaren diseinu- eta idazketa-fasean genero-analisiaren xede izan diren gai proiektual guztiak zerrendatuko ditu, eta zerrendako elementu bakoitzerako honako hauek ondorioztatuko dira: hartutako proiektuko erabakia, genero-berdintasunean duen eragina eta, eragin negatiboa antzemanez gero, proiektuan bertan ezarri diren neurri zuzentzaileak.	Dicha evaluación enumerará todas las cuestiones proyectuales que se hayan sido objeto de análisis de género durante la fase de diseño y redacción del proyecto, concluyendo para cada elemento del listado la decisión de proyecto tomada, su afección a la igualdad de género y, en caso de detectarse un impacto negativo, las medidas correctivas que se han implantado en el propio proyecto.
Zerrenda horretan, nahitaez, proiektuan zehazten diren erabilera publiko guztiak agertuko dira, bai eta ikuskizunari edo ekitaldiari eskainitako espazio guztiak (zuzenak eta laguntzaileak) ere. Ondorioz, diseinuak genero-berdintasuna zein modutan sustatzen duen ebaluatu ahal izango da, baita ekitaldien programazioari begira ere.	En ese listado aparecerán, obligatoriamente, todos los usos públicos que se determinen en el proyecto, así como todos los espacios (directos y auxiliares) dedicados al espectáculo o evento, de forma que permitan evaluar en qué forma el diseño resultante fomenta la igualdad de género incluso de cara a la propia programación de eventos.
- <u>Inklusibitatea:</u>	- <u>Inclusividad:</u>
Indarrean dauden arau teknikoak betetzearen justifikazioaz harago (proiektua egiteko garaian arreta berezia jarriko zaio), edozein pertsonak proiektatutako espazioen erabilera-berdintasun eraginkorra sustatu nahi da, edozein direlarik ere bere gaitasunak.	Más allá de la justificación del cumplimiento de las normas técnicas en vigor (a la que se le dará especial cuidado en la elaboración del proyecto), se pretende la efectiva igualdad de uso de los espacios proyectados por parte de cualquier persona, independientemente de sus capacidades.
Berariaz, desgaitasunen bat duten pertsonek (maila edo egoera edozein dela ere) zein adineko pertsonek ahalik eta modurik autonomoenean erabil ditzaketen diseinuak lortu beharko dira.	Específicamente, se deberán obtener diseños utilizables de la manera más autónoma posible, por parte de los colectivos de personas con discapacidad (independientemente de cual sea su grado o condición) y por las personas de edad avanzada.

Ondorioz, idazten den egikaritze-proiektuak bere buruaren inklusibotasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren ebaluazioa egingo du. Azterketa hori proiektuari erantsitako memoria espezifiko batean egingo da, eta gai horretan kontrastatutako kaudimena duen pertsona batek idatzita eta izenpetuta egon beharko du.	En consecuencia, el proyecto de ejecución que se redacte realizará una evaluación de la inclusividad y de la accesibilidad universal de sí mismo. Ese análisis se realizará en una memoria específica aneja al proyecto, y deberá estar elaborada y suscrita por una persona de solvencia contrastada en la materia.
Ebaluazioak proiektuaren diseinu- eta idazketa-fasean inklusibitatea eta irisgarritasun unibertsalaren ikuspegitik, proiektuko gai guztiak zerrendatuko ditu, eta zerrendako elementu bakoitzerako honako hauek ondorioztatuko dira: hartutako proiektu-erabakia, inklusibotasunean eta irisgarritasun unibertsalean duen eragina eta, eragin negatiboren bat antzemanez gero, proiektuan bertan ezarri diren neurri zuzentzaileak.	La evaluación enumerará todas las cuestiones proyectuales que se hayan sido objeto de análisis de inclusividad y accesibilidad universal durante la fase de diseño y redacción del proyecto, concluyendo para cada elemento del listado la decisión de proyecto tomada, su afección sobre la inclusividad y la accesibilidad universal y, en caso de detectarse algún impacto negativo, las medidas correctivas que se han implantado en el propio proyecto.
Zerrenda horretan, nahitaez, proiektuan zehazten diren erabilera publiko guztiak agertuko dira, bai eta ikuskizunari edo ekitaldiari eskainitako espazio guztiak (zuzenak eta lagungarriak) ere, ondoriozko diseinuak inklusibotasuna zein modutan sustatzen duen ebaluatu ahal izateko, baita ekitaldien programazioari berari dagokionean ere.	En ese listado aparecerán, obligatoriamente, todos los usos públicos que se determinen en el proyecto, así como todos los espacios (directos y auxiliares) dedicados al espectáculo o evento, de forma que permitan evaluar en qué forma el diseño resultante fomenta la inclusividad, incluso de cara a la propia programación de eventos.
- Ekipamenduak eta altzariak:	- Equipamiento y mobiliario:
Proiektuak memoria baloratu espezifikoa izango du, antzokia benetan erabiltzeko beharrezkoak diren elementu guztiena (ekipamendu osoa eta altzariak). Memoriak elementuen ezaugarri espezifikoak zehaztu beharko ditu, baina ezingo ditu markak edo eredu zehatzak aipatu. Memoria hori Udaleko talde teknikoarekin adostuko da, behin betiko entregatuko den proiektu idatzian sartu aurretik.	El proyecto contendrá una memoria valorada específica de todos los elementos necesarios para que se produzca el uso efectivo del teatro (equipamiento completo y mobiliario). La memoria deberá determinar las características específicas de los elementos, pero no podrá hacer referencia a marcas ni a modelos concretos. Esta memoria se consensuará con el equipo técnico del Ayuntamiento, antes de su incorporación al Proyecto redactado que se vaya a entregar definitivamente.

- Jarduerari dagokionean:	- Concerniente a la actividad:
Proiektuaren diseinuan eta idazketan, kontuan hartu beharko dira antzerkian egingo diren jarduerak legeztatzeko eska daitezkeen betekizun espezifikoak. Beraz, dagozkion dokumentuak idatzi beharko dira. Horietan garrantzi berezia izango du jende asko bilduko den jarduerak izateak eta, ondorioz, ikuskizun publikoen araudiak izango duen eragina.	En el diseño y la redacción del proyecto, deberán ser tenidos en cuenta los requisitos específicos exigibles para la legalización de las actividades que se vayan a desarrollar en el teatro. Se deberán redactar, por tanto, los oportunos documentos. En ellos adquirirá especial relevancia el hecho de que se tratará de actividades de pública concurrencia y la consecuente afección derivada de la normativa de espectáculos públicos.
5. BEHARREZKO LAN OSAGARRIAK.-	***5. TRABAJOS AUXILIARES NECESARIOS.-***
Adjudikaziodunak bere lepotik egingo ditu kontratua betetzeko beharrezkoak diren lan guztiak. Adibide gisa: dagoen dokumentazioa biltzea (eraikuntza eta hiri-zerbitzuen azpiegiturak), lurzoruen ikerketarako datuak hartzeko landa-lanak, azterketa geoteknikoak, argazki-erreportajeak, eraikuntzaren altimetriko osoak, urbanizazio mugakidearen topografia, etab.	El adjudicatario realizará a su cargo la totalidad de las labores que para el cumplimiento del contrato sean precisas. A modo de ejemplo: recopilación de documentación existente (edificación e infraestructuras de servicios urbanos), trabajos de campo para la toma de datos para investigaciones de suelos, estudios geotécnicos, reportaje fotográfico, levantamiento altimétrico completo de la edificación y topográfico de la urbanización colindante, etc.
Era berean, esleipendunaren kontura izango dira instalazio-proiektuak, egiturak, baldintza akustikoak eta abar, behar bezala idazteko egin beharreko azterlan guztiak.	Así mismo, serán por cuenta del adjudicatario todos aquellos estudios que sean precisos realizar para la correcta redacción de los proyectos de instalaciones, estructuras, condiciones acústicas, etc.
Proiektuak, gainera, proiektuaren hizkuntza-eraginari buruzko txosten bat jasoko du, udalak ebaluatu ahal izan dezan eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzeko aukera izan dezan.	El proyecto incluirá, además, un informe del impacto lingüístico del proyecto para que pueda ser evaluado por el ayuntamiento y que le permita, en su caso, establecer medidas correctoras.
6. FASEAK.-	***6. FASES.-***
Kontratua adierazitako faseen arabera garatuko da:	El desarrollo del contrato se realizará según las fases indicadas:

1) Aurreproiektua idaztea: baldintza-agirietan jasotako betekizunei erantzuteko proposatzen den konponbidea aurreproiektu mailan deskribatzen duen dokumentazio grafikoa eta idatzia izan beharko du. Gutxienez, proposamena ulertzen laguntzen duten infografia eskematikoak jasoko ditu.	1) Elaboración del Anteproyecto: deberá contar con documentación gráfica y escrita que describa, a nivel de anteproyecto, la solución que se propone para dar respuesta a los requisitos recogidos en los pliegos. Incluirá, al menos, infografías esquemáticas que faciliten la comprensión de la propuesta.
Aurreproiektua aurkeztu aurretik, derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat antzokiko langileekin biltzea (garbiketako langileak barne), bertan jasotzen diren proposamenak alderatzeko. Horrela, aurreproiektuaren dokumentazioarekin batera, langile horiekin egindako bileraren akta (edo bileren aktak) aurkeztu beharko da.	Será obligatorio para el contratista, previa la presentación del anteproyecto, reunirse con las personas trabajadoras del teatro (incluyendo al personal de limpieza) para cotejar las propuestas que en él se recojan. Así, junto con la documentación del anteproyecto, se deberá presentar un acta de la reunión (o de las reuniones) realizadas con dicho personal.
Udalak aldeko txostena eman beharko dio aurreproiektu horri, diseinuari eta aplikatu beharreko araudia betetzeari dagokionez.	El ayuntamiento deberá informar favorablemente dicho anteproyecto en cuanto al diseño y cumplimiento de la normativa aplicable.
2) Oinarrizko Proiektua eta Jarduera Proiektua: EKTaren I. zatian Oinarrizko Proiektu baterako eskatzen den gutxieneko dokumentazioa izan beharko du, baldintza-agiri hauetako laugarren atalean jasotako memoria espezifikoez gain (oinarrizko proiektuaren mailan). Proposamena ulertzea errazten duten erabilera publikoko guneen infografiak jasoko ditu.	2) Proyecto Básico y de Actividad: que deberá contar con la documentación mínima exigida en la Parte I del CTE para un Proyecto Básico, además de las memorias específicas, a nivel de proyecto básico, recogidas en el apartado cuarto de estos pliegos. Incluirá, infografías de los espacios de uso público que faciliten la comprensión de la propuesta.
Era berean, Oinarrizko Proiektuak jarduera-proiektu gisa izapidetzeko behar den definizioa eduki behar du, eta Udalari aukera eman behar dio neurri zuzentzaileak zehaztu ditzaketen txosten sektorialak eskatzeko, nahitaez egikaritze-proiektuan sartu beharko direnak gero.	Así mismo, el Proyecto Básico debe tener la definición necesaria para su tramitación como proyecto de actividad, y debe permitir al Ayuntamiento recabar los informes sectoriales pertinentes que puedan determinar posibles medidas correctoras, que deberán obligatoriamente

	incorporarse en el Proyecto de Ejecución.
Proiektua sinatuta eta dagokion Lanbide Elkargoak bisatuta aurkeztuko da.	El proyecto se entregará firmado y visado por el Colegio Profesional correspondiente.
Udalak aldeko txostena eman beharko dio Oinarrizko Proiektuari, lortu nahi diren helburuetara, baldintza-agirien eskakizunetara eta aplikatu beharreko araudira egokitzen denaren arabera.	El ayuntamiento deberá informar favorablemente el Proyecto Básico, en función a su adecuación a los objetivos perseguidos, los requerimientos de los pliegos y el cumplimiento de la normativa aplicable.
3) Egikaritze-Proiektua eta Autobabes Planerako proposamena: Proiektuaren edukiak, bere atalek eta erantsitako eranskinek printzipio hau bete beharko dute: proiektuaren egilea ez den edozein teknikari eskudunek hura interpretatu eta obrak haren arabera zuzendu ahal izatea. Horrek esan nahi du indarrean dagoen araudia zorrotz betetzen dela, batez ere EKTaren I. zatian, Eraikuntza Antolatzeko Legean eta Segurtasun eta Osasunari buruzko 1627/1997 Errege Dekretuan zehaztutakoarekin.	3) Proyecto de Ejecución y propuesta de Plan de Autoprotección: El contenido del proyecto, de sus distintos apartados, y de los anejos que se le incorporen, deberá cumplir con el principio de que cualquier facultativo o facultativa competente distinta del autor o autora del proyecto pueda interpretar el mismo y dirigir las obras con arreglo a éste. Ello implica un escrupuloso cumplimiento de la normativa en vigor, especialmente con lo especificado den la Parte I del CTE, en la Ley de Ordenación de la Edificación, y el Real Decreto 1627/1997 de Seguridad y Salud.
Proiektuan sartu beharko dira aurreko paragrafoan adierazitako helburua lortzeko beharrezkoak diren azterlan guztiak, edozein motatakoak (plano-jasotzeak, konektatu beharreko instalazio-sareak, azterketa geoteknikoak, segurtasunekoak eta osasunekoak, baldintza-agiri hauetan eskatzen diren memoria espezifikoak, etab.).	Se deberán incluir en el proyecto todos los estudios, de cualquier naturaleza (levantamientos de planos, redes de instalaciones a las que conectar, estudios geotécnicos, de seguridad y salud, memorias específicas exigidas en los presentes pliegos, etc.), necesarios para alcanzar el objetivo enunciado en el párrafo anterior.
Era berean, egikaritze-proiektuak antzokiaren jarduera-lizentzia izapidetzean eskatuko zaizkion neurri zuzentzaile guztiak ere jaso beharko ditu.	Así mismo, el Proyecto de Ejecución deberá incorporar las medidas correctoras que se exijan en la tramitación de la licencia de actividad del teatro.

Proiektua sinatuta eta dagokion Lanbide Elkargoak bisatuta aurkeztuko da.	El proyecto se entregará firmado y visado por el Colegio Profesional correspondiente.
Egikaritze-proiektuak jasoko duen dokumentazioaren zerrenda zehatza izateko asmorik ez daukan arren, gutxienez jaso beharrekoak dira honako zerrendako hauek:	Sin pretender que sea una lista exhaustiva de la documentación que contendrá el Proyecto de Ejecución, si constituyen un mínimo los siguientes:
a) Memoria eta eranskinak: obren xedea deskribatzen duenak, eta obren aurrekariak eta aldez aurreko egoera, bete beharreko beharrak eta hartutako konponbideen justifikazioa jasoko dituztenak, kontuan hartu beharreko era guztietako faktoreak zehaztuz.	a) Memoria y anejos: en la que se describa el objeto de las obras, y que recogerá los antecedentes y situación previa de las mismas, las necesidades a satisfacer y la justificación de la solución adoptada, detallándose los factores de todo orden a tener en cuenta.
Kalkulu-eranskin guztiak, mota guztietako azterlanak eta baldintza-agiri hauetan nahitaezkoak diren sektore-memoriak jasoko ditu, ekipamenduaren eta altzarien memoria barne.	Incluirá todos los anejos de cálculos, estudios de todo tipo, y las memorias sectoriales obligadas en los presentes pliegos, incluida la memoria de equipamiento y mobiliario.
b) Hasierako egoeraren planoak.	b) Planos de la situación inicial.
c) Multzoaren eta xehetasunen planoak, eraikinaren obrak behar bezala definituta gera daitezen beharrezkoak direnak, bai eta lursailen okupazioa, zortasunen itzulketa eta, hala badagokio, gainerako eskubide errealak eta egikaritzeak eragindako zerbitzuak mugatzen dituztenak ere.	c) Planos de conjunto y de detalle, todos los necesarios para que las obras del edificio queden perfectamente definidas, así como los que delimiten la ocupación de terrenos, la restitución de servidumbres y demás derechos reales, en su caso, y de los servicios afectados por su ejecución.
d) Instalazioen planoak, eskatutako instalazioak behar bezala definitzeko beharrezkoak direnak: ur hotz eta beroa, elektrizitatea, behe-tentsioa, telekomunikazioak, argiztapena, haribakarreko eskemak, klimatizazio-planoak (funtzionamendu-programazioa barne), megafonia, intrusioa, energia-sorgailuak, banaketa, etab.	d) Planos de instalaciones, todos los necesarios para la correcta definición de las instalaciones requeridas: agua fría y caliente, electricidad, baja tensión, telecomunicaciones, iluminación, esquemas unifilares, de climatización (incluyendo la programación de funcionamiento), de megafonía, intrusión, generadores de energía, distribución, etc.

e) Plano eszenikoak, antzokiaren erabileretarako hartu ahal izango diren konfigurazioak adieraziko dituztenak, bai eta konfigurazio horien aldaketan parte hartuko duten elementuen deskribapena ere.	e) Planos escénicos, que expresarán las distintas configuraciones que se podrán adoptar para los distintos usos del teatro, así como la descripción de los elementos que intervendrán en la modificación de dichas configuraciones.
f) Egiturak eta, hala badagokio, zimenduen planoak, erabat definituak, horiek behar bezala gauzatzeko.	f) Planos de estructuras y, en su caso, de cimentaciones, perfectamente definidas, para la correcta ejecución de las mismas.
g) Energia-azterlana, kontsumo-eraikin ia nulua justifikatzeko garrantzitsua den guztia barne hartu behar duena: inguratzaile termikoaren planoak eta sekzioak, planoak eta hermetikotasun-atalak, bakoitzak bere xehetasunekin, energia-ereduaren planoak, zubi termikoen kalkuluak, energia-memoria eta tresna onartuekin egindako kalkuluak.	g) Estudio energético, que debe incluir todo aquello que resulte relevante para justificar el edificio de consumo casi nulo: planos y secciones de la envolvente térmica, planos y secciones de hermeticidad con sus respectivos detalles, planos del modelo energético, cálculos de puentes térmicos, memoria energética y cálculos realizados con la herramienta reconocida utilizada.
h) Beharrezkoak diren instalazioen proiektu espezifikoak, indarrean dagoen araudiaren arabera, legeztatzeko eta abian jartzeko nahitaezkoak diren bisatuekin (proiektu elektrikoa; argiztapen-proiektuak, espazio guztietako argi-azterlanekin batera; berokuntza/klimatizazio proiektua; aireztapen-proiektua; telekomunikazio-proiektua, informatika-sareak, telefonikoak eta soinuzkoak barne hartzen dituena; suteen aurkako sistemak; instalazioak kontrolatzeko sistemaren programazioa; proiektu akustikoa (egokitzapen akustikoa, isolamendua, etab.), etab.).	h) Proyectos específicos de instalaciones que resulten necesarios, con sujeción a la normativa vigente con los visados que en su caso fueran preceptivos para su legalización y puesta en marcha (Proyecto eléctrico; proyectos de iluminación acompañados de estudios luminotécnicos de todos los espacios; proyecto de calefacción/climatización; proyecto de ventilación; proyecto de telecomunicaciones que incluyan redes de informática, de telefonía y de sonido; sistemas contra incendios; programación del sistema de control de instalaciones; proyecto acustico (acondicionamiento acústico, aislamiento, etc.), etc.).
i) Sarbideak kontrolatzeko eta arrotzak detektatzeko sistemen proiektuak.	i) Proyectos de sistemas de control de accesos y detección de intrusos.

j) Inklusibitatearen, generoaren eta hizkuntz-eraginaren ebaluazio-memoriak.	j) Memorias de evaluación de la inclusividad, del impacto de género y del lingüístico.
k) Preskripzio tekniko partikularren agiria, non obrak deskribatuko diren eta obrak nola gauzatuko diren arautuko den, honako hauek adierazita: nola egingo den, nola neurtuko diren gauzatutako unitateak, kalitate-kontrola eta kontratistari dagozkion betebehar teknikoak.	k) Pliego de prescripciones técnicas particulares, donde se describirán las obras y se regulará su ejecución, con expresión de la forma en que ésta se llevará a cabo, de la medición de las unidades ejecutadas, del control de calidad, y de las obligaciones de orden técnico que correspondan al contratista.
l) Aurrekontua, prezio unitarioak eta deskonposatuak jasota, neurketak eta baloraziorako beharrezkoak diren xehetasun guztiak adierazita (neurketak eta aurrekontua: prezio sinpleak, laguntzaileak eta deskonposatuak). Aurrekontuaren aparteko kapituluan jaso beharko dira ekipamendu osoari eta altzariei buruzko aurrekontuak.	l) Presupuesto, con expresión de los precios unitarios y descompuestos, mediciones y detalles precisos para su valoración (mediciones y presupuesto: precios simples, auxiliares y descompuestos). En capítulo aparte del presupuesto se debe recoger el referido al equipamiento completo y mobiliario.
m) Kalitate-Kontrolerako Programa, obrak egiten diren bitartean.	m) Programa de Control de Calidad durante la ejecución de las obras.
n) Obrak Garatzeko Programa: obra-plan adierazgarri batek osatua, denborak eta kostuak aurreikusten dituena.	n) Programa de Desarrollo de las Obras: constituido por un plan de obra de carácter indicativo, con previsión del tiempo y coste.
o) Segurtasun eta Osasun azterlana, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan aurreikusitako moduan.	o) Estudio de Seguridad y Salud, en los términos previstos en las normas de seguridad y salud en las obras.
p) Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.	p) Estudio de Gestión de Residuos.
q) Proiektuaren maketa, sekzioan, eta gutxienez 1: 50 eskalan.	q) Maqueta del proyecto, en sección, y a escala mínima 1:50.
r) Proiektuaren infografiak.	r) Infografías del proyecto.
s) Hala badagokio, Proiektua oinarritu den	s) Estudio geológico-geotécnico, en su

azterketa geologiko-geoteknikoa.	caso, sobre el que se ha determinado el proyecto.
t) Proiektuaren energia-efizientziaren ziurtagiria.	t) Certificado de eficiencia energética del proyecto.
u) Aparteko dokumentuan, Autobabes Planerako proposamena (proiektua egitearen ondoriozko aforoa edozein dela ere).	u) En documento aparte, propuesta de Plan de Autoprotección (independientemente del aforo que resulte de la elaboración del proyecto).
Proiektu osoa proiektu partzialen edo teknologia espezifikoei edo eraikinaren instalazioei buruzko bestelako dokumentu tekniko partzialen bidez garatzen edo osatzen denean, haien artean beharrezko koordinazioa mantenduko da, eta ez da bikoiztasunik izango dokumentazioan, ez eta adierazitako lanen egileek jaso beharreko ordainsarietan ere.	Cuando el proyecto se desarrolle o complete mediante proyectos parciales u otros documentos técnicos sobre tecnologías específicas o instalaciones del edificio, se mantendrá entre ellos la necesaria coordinación sin que se produzca una duplicidad en la documentación ni en los honorarios a percibir por los autores de los distintos trabajos indicados.
Udalak aldeko txostena eman beharko dio Exekuzio Proiektuari, honakoen oinarrian: lortu nahi diren helburuetara egokitzen den, baldintza-agirietako eskakizunen betetze-maila eta aplikatu beharreko araudia betetzea.	El ayuntamiento deberá informar favorablemente el Proyecto de Ejecución, en función a su adecuación a los objetivos perseguidos, los requerimientos de los pliegos y el cumplimiento de la normativa aplicable.
7. LANAK ENTREGATZEKO MODUA.-	***7. FORMA DE ENTREGA DE LOS TRABAJOS.-***
Entregak Udaletxean egingo dira, bai paperezko euskarrian (2 ale), DIN formatuan, bai euskarri informatikoan, *.pdf formatuan (sinatuak eta bisatuak, hala dagokionean).	Las entregas de realizarán en el Ayuntamiento, tanto en soporte papel (2 ejemplares), en formato DIN, como en soporte informático, en formato *.pdf (firmados y visados, en su caso).
Gainera, entregaren dokumentazio guztia euskarri informatikoko formatu hauetan egingo da:	Además, toda la documentación de las entregas se realizará en los siguientes formatos de soporte informático:
- Testuak *.docx (Word) - Planoak *.dwg (Autocad) formatuan, non	- Textos en *.docx (Word) - Planos en *.dwg (Autocad), donde cada plano

plano bakoitza marrazki-fitxategi batekin bat etorriko den eta udal bulego teknikoak erabilitako marrazki-egiturarekin bat datorren (erreferentziak, geruzak, mailak, blokeak, linea-motak, testuak, ...). - Aurrekontuak *.dbd (Arquímedes) eta *.bc3 truke fitxategian.	se corresponderá con un fichero de dibujo y acorde con la estructura de dibujo utilizada por la oficina técnica municipal, (referencias, capas, niveles, bloques, tipos de línea, textos, ...). - Presupuestos en *.dbd (Arquímedes) y en fichero de intercambio *.bc3.
Maketa Arrasateko Udaletxean entregatuko da, eskura.	La maqueta se entregará en persona en el Ayuntamiento de Arrasate.
Kontratuaren prezioan sartuta daude ale guztiak, koadernatze-gastuak, erreprografia, digitalizazioa eta lanak entregatzeko behar den beste edozein gastu.	En el precio estarán incluidos todos los ejemplares, gastos de encuadernación, reprografía, digitalización, así como cualquier otro gasto necesario para la entrega de los trabajos.
8. PROIEKTUGILEA.-	***8. PROYECTISTA.-***
Egikaritze Proiektua idazten duen profesional-taldearen buru arkitekto bat izango da, bere lanbidean aritzeko gaitua, Eraikuntza Antolatzeko Legean adierazitakoaren arabera.	El equipo de profesionales que elabore el Proyecto de Ejecución estará encabezado por un o una arquitecta, habilitada para el ejercicio de su profesión, a tenor de lo indicado en la Ley de Ordenación de la Edificación.
Hala ere, proiektuaren garrantzia dela eta, talde erredaktorearen diziplina aniztasuna beharrezkoa dela uste da. Talde horren barruan zuzendaritza eta koordinazio lanak egiten dituen pertsona izango da solaskide bakarra Udaletxearen aurrean. Kontratua sinatu aurretik, haren izen-abizenak eta harremanetarako moduak zehaztu beharko dira.	Sin embargo, debido a la trascendencia del proyecto, se estima que la multidisciplinariedad del equipo redactor es necesaria. Dentro de ese equipo, la persona que realice las labores de dirección y coordinación será la interlocutora única ante el Ayuntamiento. Se deberá especificar su nombre, apellidos y formas de contacto de forma previa a la firma del contrato.
Taldearen kaudimen teknikoa egiaztatu beharko da, administrazio-agirietan jasotakoaren arabera.	Se deberá acreditar la solvencia técnica del equipo según se recoge en los pliegos administrativos.
9. PROIEKTUAREN SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILEA	***9. COORDINADOR DE SEGURIDAD Y SALUD DEL PROYECTO.-***
Proiektua idazten duen taldearen barruan, ikusita	Dentro del equipo redactor del proyecto, se

proiektugile bat baino gehiago egongo dela, pertsona bat proposatuko da idazketak irauten duen bitartean Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen lanak egin ditzan. Pertsona horrek kargu hori betetzeko gaitasun teknikoa eta kaudimen nahikoa izango ditu.	propondrá, previa la firma del contrato, a una persona para que ostente la figura de Coordinador de Seguridad y Salud durante la elaboración del proyecto, al existir varios proyectistas. Dicha persona tendrá capacidad técnica y solvencia suficiente para ostentar dicho cargo.
Udalak Segurtasun eta Osasun Koordinatzaile gisa izendatuko du, proiektua idazten ari den bitartean, kontratuaren esleipendunak proposatzen duen pertsona hori.	El Ayuntamiento nombrará Coordinador de Seguridad y Salud durante la elaboración del proyecto a la persona que proponga el adjudicatario del contrato.
Eginkizun horretatik eratorritako ordainsariak kontratuaren prezioaren barruan daude.	Los honorarios derivados de esta función se consideran dentro del precio del contrato.
10. PROIEKTUAREN GERENTZIA.-	***10. GERENCIA DEL PROYECTO.-***
Proiektua idazteko lanak (eta kontratuaren xede diren gainerako dokumentuena) kontratuaren esleipendunak egingo ditu, Arrasateko Udaleko teknikariek emandako jarraibideen oinarrian. Horretarako, hirigintza, ingurumen eta mugikortasun saileko burua izango da (gaur egun Aitor Jauregi Larrañaga) kontratua behar bezala garatzearen arduraduna.	Los trabajos de redacción del proyecto (y resto de la documentación objeto del contrato) serán ejecutados por el adjudicatario siguiendo las directrices marcadas por los técnicos municipales del Ayuntamiento de Arrasate. A tal efecto, será el jefe del departamento de urbanismo, medio ambiente y movilidad (actualmente Aitor Jauregi Larrañaga) el responsable del correcto desarrollo del contrato.
Udalak, hala ere, proiektuaren garrantzia ikusita, kontratuaren jarraipen teknikorako batzorde tekniko bat eratuko du. Batzorde horretan, hirigintza, ingurumen eta mugikortasun sailaz gain, Udaleko Kultura saileko, berdintasun saileko eta obra, zerbitzu eta mantentze saileko teknikariak egongo dira ordezkatuta.	El Ayuntamiento, sin embargo, vista la trascendencia del proyecto, establecerá un comité técnico para el seguimiento técnico del contrato. En dicho comité estarán representados, además del departamento de urbanismo, medio ambiente y movilidad, el de cultura, el de igualdad y el de obras, servicios y mantenimiento del Ayuntamiento.
Batzorde horretako kideak arduratuko dira lanen fase desberdinetarako adostasun-txostenak egiteaz.	Serán los miembros de ese comité los encargados de realizar los informes técnicos de conformidad para las distintas fases de los trabajos.

11. KONTRATUAREN PREZIOA.-	*11. PRECIO DEL CONTRATO.-*
ARRASATEKO AMAIA ANTZOKIA ERABERRITZEKO PROIEKTUA idazteko kontratuaren prezioa BERREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA EUROkoa (247.000,00 €) da, BEZik gabe, eta lizitatzaileek beheranzko eskaintzak egingo dituzte.	El precio del contrato de la Redacción del PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REFORMA DE AMAIA ANTZOKIA DE ARRASATE, asciende a la cantidad de DOSCIENTOS CUARENTA Y SIETE MIL EUROS (247.000,00 €), IVA excluido, cantidad sobre la que los licitadores realizarán ofertas a la baja.
Prezioa zehazteko sistema orohar emandako kopuru batena izango da.	El sistema de determinación del precio será el de un tanto alzado.
Prezio horretan, proiektu osoa behar bezala gauzatzeko eta baldintza-agiri honetan deskribatutako agiri eta dokumentu guztiak egiteko beharrezkoak diren lan guztiak sartzen dira.	Dicho precio incorpora todas las labores necesarias para la correcta ejecución del proyecto completo y para la elaboración de los documentos y trabajos descritos en el presente pliego.
12. EXEKUZIO EPEA.-	*12. PLAZO DE EJECUCIÓN.-*
Kontratuaren xede diren lanak egiteko epe osoa BOST HILABETEKOA izango da, eta tarteko epeak honela banatuko dira:	El plazo de ejecución de las labores objeto del contrato será de CINCO MESES, con el siguiente desglose de plazos parciales:
- HILABETE Aurreproiektua aurkezteko, baldintza-agiri honen seigarren atalean eskatzen den gutxieneko dokumentazioarekin.	- UN MES para la presentación del Anteproyecto, con la documentación mínima exigida en el apartado sexto del presente pliego.
- BI HILABETE Oinarrizko Proiektua (eta Jarduera Proiektua) aurkezteko, baldintza-agiri honen seigarren atalean eskatzen den gutxieneko dokumentazioa izango dutelarik.	- DOS MESES para la presentación del Proyecto Básico (y el Proyecto de Actividad), que contará con la documentación mínima exigida en el apartado sexto del presente pliego.
- BI HILABETE, Egikaritze Proiektua eta Autobabes Planaren proposamena aurkezteko, baldintza-agiri honen seigarren atalean eskatutako gutxieneko dokumentazioa izango duena.	- DOS MESES para la presentación del Proyecto de Ejecución y la propuesta de Plan de Autoprotección de las instalaciones, que contará con la documentación mínima exigida en el apartado sexto del presente pliego.

Egikaritzeko epe osoa kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen, eta udal-definizioa beharrezkoa den bakoitzean epea eten egingo da. Horretarako, dagozkion etete-aktak edo etete- zin berrabiatze-erabakiak hartuko ditu udalak.	El plazo total de ejecución comenzará a contar desde el día siguiente al de la firma del contrato, interrumpiéndose cada vez que sea necesaria definición municipal al respecto, para lo cual se levantarán las correspondientes actas o se adoptarán los respectivos acuerdos de suspensión y reinicio.
13. PROIEKTUAK BETE BEHARREKO ARAUDIA.-	***13. NORMATIVA A CUMPLIR POR EL PROYECTO.-***
Proiektu teknikoa osatzen duten dokumentuek, zein kontratuaren xede diren gainerakoek, Udalari aurkezteko unean indarrean dagoen eta nahitaez bete beharreko legeriak eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko dituzte. Besteak beste:	Los documentos que conformen los proyectos técnicos y resto de la documentación objeto del contrato, deberá cumplir los requisitos exigidos en cada momento por la legislación de obligado cumplimiento que estuviere en vigor en el momento de su presentación al Ayuntamiento. Entre otros:
- Indarrean dagoen hirigintza-plangintza.	- El planeamiento urbanístico vigente.
- Indarrean dauden udal ordenantzak.	- Las Ordenanzas municipales en vigor.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoarena eta Klima Aldaketarena.	- Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático.
- Kutsadura akustikoaren arloan indarrean dagoen legeria eta araudia.	- Legislación y normativa vigente en materia de contaminación acústica.
- Segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dagoen legeria eta araudia.	- Legislación y normativa vigente en materia de Seguridad y Salud.
- 1/2023 DL, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzen legearen testu bategina onartzen duena.	- DL 1/2023, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- 1/2013 EDL, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.	- RDL 1/2013, por el que se aprueba el texto Refundido de la Ley general de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social.

- Irisgarritasuna sustatzeari buruzko indarreko legeria eta araudia, bai eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak ere.	- Legislación y normativa vigente sobre promoción de la accesibilidad, así como las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.
- Indarrean dagoen eraikuntza antolatzeko legea.	- Ley de ordenación de la edificación en vigor.
- Indarrean dagoen Eraikuntzaren Kode Teknikoa (CTE).	- Código Técnico de la Edificación (CTE) en vigor.
- Indarrean dagoen Elektroteknia Araudia.	- Reglamento Electrotécnico en vigor.
- Indarrean dauden eraikinetako instalazio termikoei buruzko erregelamendua.	- Reglamento sobre instalaciones térmicas en los edificios en vigor.
- Ingurumen-administrazioari buruzko legeria eta araudia.	- Legislación y normativa sobre administración ambiental.
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, eta horren garapenerako erregelamenduak.	- Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, y sus Reglamentos de desarrollo.
- 4/20119 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunarena, eta legearen garapenerako Erregelamendua.	- Ley 4/20119, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca, y el Reglamento para su desarrollo.
- UNE-EN 12464:1 2022 Araua, barnealdeak argiztatzeari buruzko europar araua dena.	- Norma UNE-EN 12464:1 2022 Norma europea sobre iluminación de interiores.
14. UDALAK ESKURA JARRIKO DUEN DOKUMENTAZIOA.-	***14. DOCUMENTACIÓN FACILITADA POR EL AYUNTAMIENTO.-***
Udalak kontratuaren esleipendunaren esku jarriko du proiektua idazteko lanak behar bezala garatzeko garrantzitsua izan daitekeen eta eskura duen informazio guztia, idatzitako baina oraindik gauzatu gabeko proiektu partzialak barne.	El ayuntamiento pondrá a disposición del adjudicatario del contrato cuanta información tenga y que sea relevante para el correcto desarrollo de los trabajos de elaboración del proyecto, incluyendo proyectos parciales redactados pero no ejecutados.

Esleipendunak ezin izango du Udalak emandako dokumentazioa erabili kontratuaren xedea betetzeko helburuz ez bada, eta haren zaintzaren erantzule oso izango da. Horrek esan nahi du hark egin ditzakeen erabilera bidegabeen aurrean erantzule izango dela, bai eta horien narriadura edo galtzeari dagokionean ere. Betebehar hori betetzen ez bada, Udalari kalte-ordaina eman beharko zaio sortutako kalte edo galerengatik.	El adjudicatario no podrá utilizar la documentación facilitada por el Ayuntamiento con otra finalidad que la del mero cumplimiento del objeto del contrato, siendo responsable de su custodia, lo que implicará responder ante cualquier uso indebido que de los mismos se hiciere, así como de su deterioro o extravío. El incumplimiento de esta obligación supondrá el deber de indemnizar al Ayuntamiento todos los daños y perjuicios que para el mismo se deriven.
15. ALDIZKAKO INFORMAZIOA.-	***15. INFORMACIONES PERIÓDICAS.-***
HAMABOSTEAN BEHIN, gutxienez, esleipendunak, proiektua egiteko ardura duen pertsonaren bitartez, kontratuaren xede diren lanen martxari eta garapenari buruzko informazioa emango dio Udalari, udaletxean bertan. Ondorio horietarako, dagozkion joan-etorrien eta dieten gastuak kontratuaren prezioan sartuta egongo dira.	Cada QUINCE DÍAS, como mínimo, el adjudicatario, a través de la persona responsable de la elaboración del Proyecto, informará puntualmente al Ayuntamiento, en la propia casa consistorial, sobre la marcha y desarrollo de los trabajos objeto de contrato. A estos efectos, los gastos de desplazamientos y dietas correspondientes se entenderán incluidos en el precio tipo de licitación.
Era berean, Udalak enpresa esleipendunaren bulegoak bisitatu ahal izango ditu, enpresa esleipenduna egiten ari den lana ikuskatzeko	Asimismo, el Ayuntamiento podrá visitar las dependencias de la empresa adjudicataria para supervisar la labor que ésta esté llevando a cabo.
16. PROIEKTUA IDAZTEKO BEHARREZKO BAIMENAK.-	***16. AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA REDACCIÓN DEL PROYECTO.-***
Enpresa esleipendunak egin beharko ditu beharrezkoak diren kudeaketak, dela enpresa hornitzaileen aurrean, dela bestelako administrazio eskudunen aurrean, proiektua idazteko beharrezkoak diren baimen sektorialak lortzeko, hargatik eragotzi gabe Udalak eskaera formalak betetzea.	La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones sectoriales que sean precisas para la elaboración correcta del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.
17. AKATSAK, KALTE-ORDAINAK ETA ERANTZUKIZUNAK	***17. SUBSANACIÓN DE ERRORES, INDEMINZACIONES Y***

ZUZENTZEA.-	***RESPONSABILIDADES.-***
Ondorio horietarako, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 314 eta 315 artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.	A estos efectos será de aplicación lo dispuesto en los artículos 314 y 315 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
18. EUSKARAREN ERABILERA.-	***18. UTILIZACIÓN DEL EUSKARA.-***
Arrasateko Udaleko Euskara Biziberritzeko Planak ezarritakoaren arabera, enpresa esleipendunak honako hizkuntza-irizpide hauek erabili beharko ditu:	De conformidad con lo establecido por el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Arrasate, la empresa adjudicataria deberá utilizar los siguientes criterios lingüísticos:
a) Kontuan harturik Udalaren lan-hizkuntza euskara dela, enpresa esleipendunak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak(kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak, ...) euskaraz egingo dira.	a) Considerando que la lengua de trabajo del Ayuntamiento es el euskera, las relaciones tanto verbales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, …) de la empresa adjudicataria con el Ayuntamiento se llevarán a cabo en euskera.
b) Idazten diren dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira; salbuespena, Oinarrizko Proiektua eta Exekuzio Proiektua entregatzean izango da. Kasu horietan, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, nahitaez, mota guztietako memoriak eta planoak.	b) Los documentos que se redacten deberán redactarse en euskera y castellano; con la sola excepción de la entrega del Proyecto Básico y el Proyecto de Ejecución, en cuyo caso la obligatoriedad de la redacción en ambos idiomas se limitará a las memorias de toda índole y a los planos.
c) Kontratuari esleitutako talde teknikoko pertsona batek, gutxienez, 3. hizkuntza-eskakizunaren pareko euskara-maila izan beharko du.	c) Al menos una de las personas del equipo técnico asignado al contrato deberá contar con un nivel de euskera equiparable al perfil lingüístico 3.
19. TXOSTEN TEKNIKOA.-	***19. MEMORIA TÉCNICA.-***
Lizitatzaileek Memoria Tekniko labur bat aurkeztuko dute, orrialde kopurua behar bezala adierazita eta dagokion aurkibidearekin. Bertan, modu zerrendatuan, lizitazioan baloratuko diren alderdiak jasoko dira.	Los licitadores presentarán una sucinta Memoria Técnica, debidamente paginada y con su correspondiente índice, en el que, de forma enumerada se recojan aquellos aspectos que serán objeto de valoración en la licitación.
Memoria Tekniko hori idazteko lagungarri izan	Para facilitar la elaboración de esa Memoria

daitezen, honako dokumentuak argitaratuko ditu udalak lizitazioaren baitan: plano editagarriak DWG formatuan, 2024ko urriaren 18an egindako antzokiaren argazki sorta eta KREAN, S.COOP. enpresak 2023ko abenduan udalarentzat egindako "Memoria Valorada de las Necesidades del Teatro Amaia en Arrasate" izeneko dokumentua.	Técnica, el ayuntamiento publicará entre la documentación de la licitación, los siguientes documentos: planos en formato editable DWG, fotografías del teatro a fecha 18 de octubre de 2024, y el documento titulado "Memoria Valorada de las Necesidades del Teatro Amaia en Arrasate", redactado por la empresa KREAN, S.COOP. en diciembre de 2023.
Gainera, udalak bisita bat aurreikusi du Amaia Antzokira, interesa izan dezaketen lizitatzaile guztientzat. Bisita 2025eko urtarrilaren 10ean, ostirala, da egitekoa, goizez. Lizitatu nahi duen enpresa bakoitzeko 2 lagun onartuko dira bisitan, gehienera ere. Horretarako baldintza izango da aurretiaz izen ematea, hirigintza@arrasate.eus helbidera bidalitako e-mail bidez. E-mail hori 2025eko urtarrilaren 9ko goizeko 10:00ak baino lehen bidali beharko da eta bertan adierazi beharko da enpresaren izena eta etorriko denaren izen-abizenak. Bisitaren ordutegia zehaztuko da Udalak bidalitako erantzun e-mail baten bidez. Aurretiaz izena eman gabeko inor ez da onartuko bisita horretan.	Además, el Ayuntamiento prevé realizar una visita a Amaia Antzokia, a realizar el viernes, día 10 de enero de 2025, en horario de mañana, para todas aquellas empresas licitadoras que muestren interés. El número máximo de personas por cada empresa que pretenda licitar será de 2. Y será condición advertir al ayuntamiento a través del correo electrónico hirigintza@arrasate.eus de la intención de acudir a la visita, indicando nombre y dos apellidos de las personas que vayan a acudir, así como el nombre de la empresa. Dicho e-mail se deberá enviar antes de las 10:00 de la mañana del día 9 de enero de 2025. El horario de la visita se indicará en e-mail de respuesta que enviará el Ayuntamiento. Quien no se haya inscrito previamente para la visita no podrá realizarla.
Kontratuaren xedearen irismena eta edukia bera baloratzeko eduki nahikoa izango duen. Memoriaren hedadura ez da DIN A4 formatuko 12 orrialde baino luzeagoa izango (planoak izan ezik, aparteko orrietan aurkeztuko baitira eta testuko 12 orrialdeen mugarako ez dira zenbatuko). Letraren gutxieneko tamaina Word-en 10a izango da, eta gutxieneko lerrokoa, erraza. Memorietan ez da baloratuko 12. orrialdetik aurrerako orririk. Azalak eta aurkibideak ez dute kontatuko 12 orrialdeko mugarako. Memoria euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.	El contenido de la Memoria Técnica que se presente será suficiente para calibrar el alcance y contenido del objeto del contrato y su extensión no superará las 12 páginas en formato DIN A4 (excepto los planos que, de haberlos, se presentarán en páginas aparte y no computarán para ese límite de las 12 páginas de texto). El tamaño mínimo de letra será el 10 de Word y el interlineado mínimo el sencillo. No se valorarán las páginas de las memorias que excedan de la página 12. La portada y el índice no computarán para el límite de las 12 páginas. La memoria podrá presentarse en euskara o en castellano.
Aipatu den bezala, Memoria Teknikoaren	Tal y como se ha mencionado, al documento

dokumentu idatziari, luzera mugatua duenari, beharrezkotzat jotzen diren adina plano gehitu ahal izango zaizkio, idatzizko zatiek adierazi nahi dutena hobeto ulertzeko. Baldintza izango da zati idatzian berariaz egin beharko zaiola erreferentzia, testuan bertan, plano zenbaki zehatzari, bertan jasotako informazio grafikoak testuan deskribatutakoa ulertzen laguntzen duela uste den tokian bertan. Testuan aipatzen ez diren planoak ez dira baloratuko.	escrito de la Memoria Técnica, de longitud máxima establecida, se le podrán añadir tantos planos como se estime necesarios para la mejor comprensión de lo que la parte escrita pretende reflejar. Será condición que la parte escrita haga referencia a los números de plano concretos, allá donde se considere que la información gráfica recogida en ellos ayude a la comprensión de lo descrito en el texto. Los planos no referidos expresamente en el texto no se valorarán.
Memoria horren edukia lizitazioaren xede den kontratua esleitzeko prozeduraren baitan baloratu egingo da.	El contenido de esta memoria se valorará a la hora de proceder a la adjudicación del contrato objeto de licitación.
Objektibotasuna bermatzeko, balio-iritzien bidez kuantifikatzeko irizpideak baloratzerakoan, udaleko hirigintza saileko bi teknikari desberdinek (udal arkitektoak eta saileko buruak) baloratuko dituzte memoriak, bakoitzak bere aldetik. Memoria bakoitzari egingo dioten balorazioaren media aritmetikoa izango da balio-iritzien bidez kuantifikatzeko irizpideetan lizitatzaile bakoitzari esleituko zaion puntuazioa.	Para garantizar la objetividad a la hora de valorar los criterios cuantificables sujetos a juicios de valor, serán dos técnicos municipales del departamento de urbanismo (la arquitecta municipal y el jefe del servicio) quienes valoren de forma individual las memorias presentadas. La puntuación final que se otorgue a cada memoria en el apartado de criterios sujetos a juicio de valor será la media aritmética de ambas valoraciones.
Memoria teknikoek eskema honi jarraitu beharko diote:	El esquema que deberá seguirse en las Memorias Técnicas que se presenten será el siguiente:
1.- Proiektuak bete beharreko eskakizunen analisia:	1.- Análisis de los requerimientos que debe satisfacer el proyecto:
Proiektuak erantzun beharreko eskakizunak modu taldekatuan zerrendatuko dira, eta lizitatzaileak, proiektua egiten den bitartean, horiei nola helduko dien eta nola konponduko dituen azalduko da. Egindako planteamenduaren egokitasuna deskribatu beharko da, ahalik eta irizpide gehienen arabera, hautematen diren ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak adierazita.	Se relacionarán de forma agrupada los requerimientos a los que el proyecto debe dar respuesta y el modo en el que el licitador abordará su tratamiento y resolución durante la elaboración del proyecto. Se describirá la idoneidad del planteamiento realizado en base al máximo de criterios posibles, incluyendo las debilidades, fortalezas, amenazas y oportunidades detectadas.

Código Exp.: 2024CHOZ0033 **Asunto:** AMAIA ANTZOKIA ERABERRITZEKO PROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

2.-Antzokiaren antolaketarako eta espazioetarako eskemaren planteamendua:	2.- Planteamiento de esquema organizativo y espacial del teatro:
Eskema mailan, antzokiak izango dituen aldaera funtzional desberdinetarako antolaketa espaziala planteatuko da. Honakoak adierazi beharko dira: erabilera posible desberdinak, zirkulazioak eta, pleguetan jasotako eskakizunak konpontzeko, proiektuan jaso beharreko jarduketen tipologiak.	Se planteará, a nivel de esquema, la posible futura organización espacial del teatro para las distintas variantes funcionales del mismo. Se tratarán de reflejar: los diversos posibles usos, las circulaciones y la tipología de las intervenciones a recoger en el proyecto para resolver los requerimientos establecidos en los pliegos.
3.- Jasangarritasunaren ikuspegitik, proiektuan landu beharreko lanen deskribapena:	3.- Descripción de los trabajos a abordar en el proyecto desde la visión de la sostenibilidad:
Proiektuan aintzat hartuko diren jasangarritasun aldagaiak deskribatuko dira. Jaso beharko dira: energia-alderdiak, proiektuan erabiliko diren material lehenetsiak, eraikuntza-elementuei emango zaien tratamendua, instalazioena, ekonomia zirkularrari egindako ekarpenak, eta abar.	Se describirán los aspectos de sostenibilidad que se considerarán en el proyecto. Se deberán recoger los aspectos energéticos, de los materiales de preferencia que se utilizarán en el proyecto, del tratamiento que se les dará a los elementos constructivos e instalaciones, de la contribución a la economía circular, etc.
4.- Proiektuan berdintasuna eta inklusibitatea nola txertatuko diren deskribatzea:	4.- Descripción de cómo se van a implementar la igualdad y la inclusividad en el proyecto:
Alderdi horiek nola bermatuko diren azalduko da, bai proiektua idazteko prozesuan, baita lortzen den azken produktuan ere. Halaber, berdintasuna eta inklusibitatea lortzeko antzokiak dauzkan baldintzapen nagusiak zerrendatuko dira eta horien konponketari nola helduko zaion deskribatuko da.	Se describirá cómo se garantizarán esos aspectos, tanto en el proceso de redacción del proyecto como en el producto final que se obtenga. Se relacionarán, así mismo, los principales condicionantes que presenta el teatro para la consecución de la igualdad y la inclusividad y el modo de abordar su resolución.

Arrasaten, sinaduraren datan / En Arrasate, en la fecha de la firma

Hirigintza burua / Jefe del Dpto. Urbanismo

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

AITOR JAUREGI LARRAÑAGA
2024/12/16

Kodea/Código	J24/11653	**Entitatea/Entidad**	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA136DR.8.BtBL		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/55/AAA136DR8.BtBL		

Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia
/Para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR